

O zer izketa maite eztitsu
 Gozoaz digun esaten:
 «Ikasi otsan biotz-oneko
 Nere antzera izaten»¹
 ¿Eztezu ikusten baratzan oso
 Penazko kopa eraten,
 Oñaze miñik aundienetan
 Gorputz ta anima ematen?

Gure amorez etc.

Gure amorez kiskaltzen dago,
 Gure amorez miñdurik,
 Zigor, irazill, arantza, iltze,
 Gurutzepean lerturik,
 Jakiñik bere miñ oyek gabe
 Guk ez degula Zerurik;
 ¿Eta oraindik gizon gaistoak
 Ez du artuko damurik?

Gure amorez etc.

Guazen damu-on maitetasunez
Jesus-en Biotz barrura;
 Guazen animak garbitutzeko
 Eskaiñtzen digun lekura;
 Sakramentuban or dago *Jesus*
 Janariaren modura,
 Gizon gaiñoak indartutzeko
 Ta eramateko zerura.

Gure amorez etc.

Guazen *Jesus*-en Biyotz maitera;
 Geron biyotzak ontzeko,
 Birtute danak an ikasirik,
 Amorez alkar-sutzeko;
 Bere graziyak guganaturik
 Berari lagun eiteko,
 Iraunik beti amorez anche,
 Jainko amorez iltzeko.

Gure amorez etc.

JOSÉ IGNACIO DE ARANA..



(1) Discite a me, quia mitis sum, et humilis corde. (Matth. 11. 29.)

CARTA LITERARIA.¹

Pamplona 17 de Diciembre de 1884.

Sr. D. Marcelino Soroa.

Muy Sr. mio y distinguido amigo y paisano: He leído con singular complacencia su larga y discreta carta de 16 de los corrientes.

Respecto á la cuestion ortográfica del bascuence, aun reconociendo de buen grado, que el empleo de las *h* viene á chocar los hábitos establecidos, no puedo ménos de considerar lo que contra él se dice más que como una *preocupacion* que no resiste la más ligera crítica.

En cuanto á la afectacion de *purismo* en que caen muchos escritores modernos de mérito, soy de la opinion de V. Mi criterio en la materia es el siguiente:

1.º Rechazar todo término de uso general y frecuente que esté tomado del castellano ó francés ó lenguas románicas, como *segitu*, *pensatu*, *acordatu*, etc., los cuales son insoportables y punibles barbarismos, *á no ser que se trate de remedar el lenguaje popular, en cuyo caso hay que aceptarlos, como se aceptan los hechos.*

2.º En los términos del estilo elevado (técnicos, poéticos, filosóficos, etc.) conviene apelar á los diversos dialectos y tomar de ellos los que sean *populares y usuales*, para impedir que *la lengua*, considerada en abstracto, los pierda.

3.º No acudir á la formacion de nuevos vocablos más que cuando se habla á un auditorio selecto, siendo preferible, en lo demas, acudir, por ahora, al fondo latino, pero valiéndose de las terminaciones puramente euskaras; así p. ej.: no me repugna nada el vocablo *armaegille*; en cambio me hace daño el oír *armerua* fuera de la escepcion propuesta en el número 1.º

Se repite de V. afmo. amigo y S. S. Q. B. S. M.

ARTURO CAMPION.

(1) Nuestro estimado amigo y colaborador D. Marcelino Soroa nos ha entregado para su publicacion la siguiente curiosa carta que insertamos previamente autorizados por su autor, el distinguido escritor nabarro D. Arturo Campion.

KANTA-ERREGUBA

SAN JOSÉ-RI.

KANTARTEA.

Jesus-en Aita-ordeko
San José maitea,
Beragan bitarteko
Zu izan zaitea.

KANTALDIAK.

Zu gizon ta aingerubak
Kantatzen ai-dira,
Zu zerubak jasotzen
Argizko jargoiria;
Jainko-berak zaitu zu
Aita-tzat begira,
Birjiñ-Ama amoriyoz
Zugana da jira.

Aita Betikoaren
Seme-Betikoak
Pozik egiten ditu
Zure itz-goñoak;
Jarrairik zeru-lurren
Jabe Jaungoikoak
Lasterka zure nayak,
Naiz, begi-kiñoak.

Betikotasunetik
Izan dan Semea
Aita-Jainkoak nai-du
Zuri mendetzea;
Izpiritu-Santubak
Birjiñ-Emaztea
Nai du zure izatea,
Izanik berea.

CÁNTICO-PLEGARIA

A SAN JOSÉ.

CORO.

Inclito y gran Patriarca,
De Jesus Padre-nutricio,
Osténtanos propicio
Tu auxilio protector.

ESTROFAS.

Los hombres te bendicen,
Los ángeles te cantan,
Los cielos te levantan
Al solio de esplendor;
Dios mismo en forma humana
Te aclama como á Padre,
La Virgen, de Dios Madre,
Su Esposo y dulce amor.

Obedece gozoso
El Hijo del Eterno,
Al son más leve y tierno
Del eco de tu voz;
Y al que los orbes rige
Y al mundo ha redimido,
Le tienes suspendido
De tu mirada en pos.

El Padre sempiterno
Te fia en mortal vida,
La prenda más querida
De su divino ser;
Y el Paracleto Santo
A tu afecto sincero,
Ofrece placentero
De su Esposa el querer.

Zure biotz-gañean
Dago Jesus-ena
Beraganatzen anchen
Poza ta atsedena;
Emazte Birjiñ-Ama
Daukazula urrena,
Zure doai bertutez
Zoratuba dena.

¡Nola zan alegratu
Menfis-ko landara,
Zurekin Jainko-Jesus
Pasatzean ara.
Eramate ez-pa-dezu
Nilo-aldeetara
Erori da Herodes-en
Atzamarretara.

Zurekin Aurcho-Jesus
Zurekin Birjiña,
Zoratzen daude edanaz
Gozo ta atsegiña;
Santutu dezu ayekin
Ejipto-berdiña,
Berakin gero bizi
Nazaret-iskiña.

Garailari oinpeturik
Izartegi-dana
Inguratuba aingeruz
Zoaz-Jauna-gana.
Zure-mantupera da
Eleiza laztana;
Zerutik laguntzera
Atoz beragana.

El Corazon de Cristo
Sobre el tuyo amoroso,
Busca calma y reposo,
Halla alivio y solaz;
Tu divina consorte
Inmaculada y Santa,
De tu virtud se encanta,
Llena de gozo y paz.

A orillas los conduces
Del Nilo placentero,
Burlando el golpe artero
Del homicida Rey;
Del Menfis los desiertos
Se visten de alegría,
Viendo en tu compoñia
Al Angel de la Ley.

Contigo se deleitan
La Virgen y Dios niño;
Contigo es su cariño,
Contigo su placer;
Con ellos santificas
Egipto y la Judea,
Con ellos te recrea
Vivir en Nazaret.

Tú con Jesus triunfante
Sobre doradas nubes,
Al Santo Empíreo subes
¡O gloria de Israel!
La Iglesia ácongojada
Bajo tu manto corre;
Defiéndela y socorre;
Protege al Pueblo fiel.

Bada zure almena
Ager-dá aiñ aundiya,
Ze Jaunak ematen du
Nai dezun guztiya,
Egiguzu, San José,
Chit-ona biziya,
Jainkozko eriotza ta
Zeruko gloriya.

Pues/tu poder es tanto
Que á un eco de tu ruego
Acude el Señor luego
Con ávida emocion,
Concédenos, gran Santo,
Con vida venturosa,
Una muerte dichosa
Y eterno galardón.

JOSÉ IGNACIO DE ARANA.

USOA TA EUSKALDUNA.

(AMALAUDUNA.)

ON JOSÉ UMARAN JAUNA-RI.

Bi uso bizi ziran Euskal-errían
Elkar maiterik guztiz zorionian,
Biak kabi batean jaiotakoak,
Biak amacho batek azitakoak.
Bat botarik ekaitzak itsasoz aronz
Geldituzan laguna itsasoz ononz,
Eta geroztik bien urrugachoak
Ziruriten jai! antsi dolorezkoak!
Egatzen ziran elkar ikusi nairik
Baña alferrik; ta beiñ lurra utzirik
Joan ziran zuzen gora jan! bildutzera.
Gu ¿nón bilduko gera? ¡O Euskaldunak!
Guk ta Amerika-ko gure lagunak
¡Ega dezagun! ¡ega! Zeru aldera!

ANTONIO ARZÁC.

UMARAN JAUNARI BERE EGUNEAN.

Ez da munduan ezagututzen
 Ezer tinka dagoenik.
 Eguraldi on eta lasaiak
 Dakar ekaitza ondotik:
 Gizatasunen bizia ez da
 Burnizko kate bat baizik,
 Non arkitutzen diran jayera
 On ta char denak zinzillik.
 Argirik ez da beti diraunik
 Desberdintasunik gabe:
 Urte guzian zimur gabeko
 Lorerik, ez eta ere:
 Illunaldiak izaten ditu
 Eguzkiak berak ere,
 Izanagatik mundu askori
 Argi egiteko trebe.
 Baña, zuk dezun amorioa
Ama maiterenganako
 Ordu gaiztoan ken zizkiguten
 Lege zarrakenganako:
 Lurra jorikan arkitutzen dan
 Jaioterrirenganako;
 Jaunak, dirudi, sartu zizula
 Biotzean sekulako.
 ¿Nola ez dira, oraindik ere,
 Enzungo belar chuluan,
 ¿Nola ez dute soñu egingo
 Umaran, nere buruan,
 Donostiako bazkarichoan
 Bildu giñaden orduan,
 Adi nizkitzun itz eder aek
 Pozez ia zoratuan?

Kabi heroan chori gaiñoa
 Dan bezela esnatutzen,
 Egunsentiko aizeren otsa
 Duenean sentitutzen;
 Zure aotik isurtzen ziran
 Itzak ninduten alaitzen;
 Eta bularrak, Fueroen alde,
 Irazeki eta arrotzen.
 Berrogei urtez izandu arren
 Urruti Euskal-erritik:
 Arkitu arren zure burua
 Elur utsez zurituri,
 Eta bizkarra, lanaren bidez,
 Zerbait ere makurturik,
 Pozkidatzen naiz dezula biotz
 Altzairuzkoa oraindik....
 Zu bezelako semeak ditu
 Bear Aitorren erriak;
 Itzak pisu ta begiak zorrotz,
 Alcharikan bekokiak,
 Biotz indartsu autsiezkorrak
 Dituzten ume argiak;
 Ez patu charrak negar erazten
 Dizkien aur bildurtiak.
 Oroiturikan, kristandadean
 Gaur dala zure eguna,
 Jaungoikoari diot eskatzen,
 Zuretzat, Umaran jauna,
 Bizitz ontako basamortuan
 Urte askoz osasuna;
 Eta ondoren, zeruetara
 Egaatzeko zoriona.

KLAUDIO OTAEGI-KOAK.

ON JOSÉ UMARAN JAUNA-RI.

Udaberria urbiltzen zaigun bezela
Jaiki ta piztutzen da Sortitz guztiya:
Ala jaiki ta laster piztu dedilla
Gaur lotan arkitzen dan Euskal-erriya:
Ori gertatuko da, here seméak
Denak badira Umaran beziñ erneak,
Ta badute sentitzen, aren moduan,
Maitelasun gartsua biyotz barruan.

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

APUNTES NECROLÓGICOS.

El día 9 del corriente mes falleció en Madrid, á los 44 años de edad, el Senador por esta provincia Sr. D. Casimiro de Egaña y Oquendo, Conde de Egaña. Natural de Mondragon, procedia de dos nobles familias de este país, pues su padre D. Andrés era hermano del ilustre patricio bascongado y eminente hombre público, que hoy vive retirado en Cestona; y su madre pertenecia al distinguido linaje de los Mercado y Oquendo, de la antigua Arrasate.

Cuando el sol de los fueros vivificaba nuestra existencia, representó varias veces á Mondragon en las inolvidables Juntas de Guipúzcoa; y posteriormente ha ocupado los escaños senatoriales en representacion de la misma provincia. En todos los cargos que se le han conferido, ha demostrado su claro talento, su gran actividad, y sobre todo, su ardiente amor al país.

Lamentable es que se haya cortado en flor una existencia, destinada tal vez á continuar los servicios que una noble Casa, genuinamente bascongada y española, ha prestado al país en el pasado y en el presente siglo.

¡Que Dios le haya acogido en su seno!

EL FRIO

DURANTE EL INVIERNO DE 1884 85.

Verdaderamente excepcional, por el intenso frio que ha reinado, ha sido el invierno que hoy se despide.

Montañas situadas á los bordes mismos del Cantábrico, donde rara vez llega la nieve, las hemos visto cubiertas de blanquísimo manto durante varios días. Y esto no es nada, si fijamos nuestra atencion en los fenómenos meteorológicos que se han dejado sentir en Pamplona, Vitoria, Valladolid y otras poblaciones del interior.

En Pamplona se helaron los huevos en las tiendas de comestibles, el rio Arga se cubrió de una gruesa capa que el 21 de Enero tenia 14 centímetros de espesor, dándose el caso de que una piedra, como de cuatro arrobas de peso, tirada desde el puente de la Rochapea, no hiciera mella alguna en dicha capa; la temperatura descendió hasta 19 grados *bajo cero*, y se observaron fenómenos casi polares, como caer la nieve en forma de polvo, cosa que no se recuerda haber sucedido en este país, muchos años há.

En Valladolid, se heló el vino en los pellejos; el Pisuerga se cubrió de tan gruesa capa, que la gente pasaba de una á otra orilla sobre ella, sin temor alguno; el termómetro llegó la mañana del 19, á marcar 20 grados *bajo cero*, debiendo advertir que quizá esta temperatura fuese más baja, puesto que el índice de esmalte del termómetro de mínima llegó á la extremidad del tubo, no pudiendo marcar, por tanto, temperaturas menores; los centinelas de la guardia del presidio manifestaban que si estaban parados uno ó dos minutos, no podian mover los piés, porque la helada los sujetaba al suelo; el movimiento de carros tuvo que reducirse á lo puramente necesario, pues el ganado no podia tirar, porque resbalaba en las calles; para el paso de los carros que llevan el pan á la ciudad, en el puente de hierro, cuyo pavimento es de madera, tuvieron que colocar sacos viejos; y en el centro de la poblacion forrar los cascos de las caballerías con esteras y trapos.

Y aún son más notables, por lo excepcionales, las noticias que desde Medina de Aragon ha comunicado el P. Escolapio D. Domingo Urdaniz, que dice que la temperatura mínima del 16 de Enero, fué de

26 grados *bajo cero*, añadiendo que á consecuencia de tan horrorosos frios, las frutas se helaron hasta el núcleo, el pan quedó así como petrificado, estallaron las botellas que contenian licores alcohólicos; y contra las vidrieras de algunas habitaciones se depositaron interiormente capas de hielo de diez, y hasta de quince milímetros de espesor. Dice que no se tenia noticia de que hubiese ocurrido desde el año 1822 temporal tan terrible de frio como el que se estaba experimentando y que hasta más tarde seria imposible calcular la importancia de sus dañosos efectos.

Tambien han caido copiosas nevadas en Córdoba, Sevilla y Huelva. En esta última poblacion, no habia ejemplo de que hubiese sucedido otro tanto desde el año 1819.

En el Piamonte (Italia) han ocurrido gravísimos desastres á causa de la nieve, que ha alcanzado una altura fabulosa, y cubierto de espesísima capa los valles de Susavaraita, Aosta, Soana y Luserna: el número de víctimas ha sido, por desgracia, tan considerable, que la generacion presente no recuerda haya ocurrido número igual por el mismo motivo.

En todas partes se paralizó el movimiento de trenes; la caza montés, acosada por el hambre, bajó hasta los mismos pueblos.

Como sucede en tales casos, cada cual reconstituye la historia de los inviernos pasados, y se dedica á buscar en su mente los recuerdos de alguno que haya excedido, ó por lo ménos, igualado al presente, en crudeza, hallándolo unos hace doce ó catorce años, otros suben hasta veinte y cinco, y hay, por fin, quien se remonta hasta los cincuenta. De todos modos, ha sido un invierno extraordinario, que merece consignarse en los anales meteorológicos, como merece consignarse tambien que en nuestra *Donostia* la temperatura mínima no ha excedido, durante él, de 5 grados *bajo cero*.

ALBISTE ON BAT URTEORO BERRITZEN DANA.

Edadean eta dotriñan lenagoko denboretako gizon-
zar **FERNANDO** eta onen antzekoen, eta oraingo denboretako
ERNESTO, eta bere gisakoen arteko «jolas-aldiya.»

(AURRANDEA.)

Bañan nun agertzen dan eziñ eta geiago zuen biotz eta mingañe-
tako errentasun eta erreskeri lasaia, da *Bulda Santua* ukitzean. ¡Je-
sus, eta zer gauza desegoki eta itsusiak esan dituzuen gay onetan!
Ez ditut nai erreberritu loitu nadin beldurrez, eta entzuten daude-
nenganako begiramentuz. Sinistu zadazue, Ernesto eta lagun adis-
kideak, ez dala ori modua orrelako gauzak tratatu eta erabakitzeko:
edozeiñ gai eta personazatik begiramentu geiagorekiñ mintzatu bear
dala: alá egiten duela aziera ona, edo zerhait dakien gizon guziak;
eta zentzu eta errespeto gabekeri oriekiñ asko ta asko loitu eta itsu-
sitzen dituzuela zeren buruak. Ikusi dezazuen, bada, zer arrazoi
guchirekin autaratu dituzuen, katoliko dan guziak errespetatu bear
litukeen, personak; eta eskergabekeri are aundiagoarekiñ, asko es-
timatu bear zendukeen, gauza bat; esango dizuet oraiñ egiaz eta
menaz zer eta zertarako dan *Bulda Santua*.

1.^a Ikusi dezue *barau-bijiliak* ez dirala nola nai, ez bada arrazoi
egokiarekin, Eleiza Ama Santa Erromakoak jarriak, eta katoliko ona
dan edo artzakotzaz egon nai duanak bear dituela atera, aginduak
dauden eran, entzunaz eta obedituaz onela Eleizari, entzun eta obe-
ditu nai hadio beñik-beiñ Jesukristori. Eleiza santak agindutako
barau-bijili oriek dirade, zuek obeto konturatu zaitezeeen, gure gor-
putza ezi, pekatuakgatik zerhait penitenzi egiñ eta len esun ditugun
beste gauza santu aietarako Ama maitagarri ark ipiñi dizkigun pe-

cha edo kontribuzio batzuek bezela. Au arretaz gogoan artzazue.

2.^a Fedeko egia da, Jesukristok emanik daukala Eleiza Ama Santak bear duan eskua kristauen pekatuak penitenziako sakramentuan barkatzeko, edo ez barkatzeko, pekatarien prestaerari dagokion eran: eta inpernu eta mundu guzia egia onen kontra jaikiko balira ere, au onela izango da; eta Eleizak barkatzen duana edo barkatzen ez duana, inpernu eta lurren gañelik dagoan Jaungoikoaren aurrean, barkatu edo barkatu gabea geldituko da. Ezer ezetik gizona egiñ, eta onengatik bere burua gurutzera zuan Jaungoiko guzizaldun eta zero lurren jabeak onela erabaki zuan, zezakeanak bezela, inpernuko deabru eta munduko aundi-mandiai batere galdetu gabe, eta ez dago oni arabakia zer jarririk; ez bala Jaungoikoaren aunditasun eta miserikordi-arriagarriak ezagutu, burua makurtu, gure ezereztasuna aitortu eta *amen* egiñ baizik. Jaungoikoa alabriandanere, Jaungoikoa da, eta gizona gizon; au da arren kreatura, guziz guzia berari zor dion argal eta pekatari bat.

Eskubide miragarri onekiñ ornitatuako Ama Eleiza Santak, begiratuaz mundu guzian zabal luak dauzkan bere seme katolikuen animetako premiari, ta mugituaz aenganako amorio eta urrukimentuz, ariñdu nai izan die Obispoa edo Erromara joaten lotsa eta nekea beren pekatuen barkazio-billa, eta onetarako ipiñi ditu bazter guzietan bere ministroak, pekatarien konfesioak entzun eta arentsegitak barkatzeko; baña barkazioa iristeko neurriak erraztutzearekin, bere umeak, ondo bearrean, zabartu ditezke-alako beldurrak arturik, ipiñi ditu konfessoreetan eskubide mallak, pekatuetan dau den bezela, ematen diolarik konfessore batzuei pekatu mota batzuek bakarrik eta ez besteak, barkatzeko eskua: beste zenbaiti, pekatu aek berak eta beste larriagoko batzuek barkatzekoa, baña ez besterik; uzten duelarik Obispo Jaunen eskuan itsusiago eta nabarbenagoko beste zeinbaiten barkazioa, eta gordetzen duelarik azkenik Aita santuak beretzako bakarrik, seta gaistozko zenbait pekatu larrienak: gertatzen dala emendik pekatu batzuen absoluzio edo barkazioa iristeko joan bearra erremedio gabe (eriotzako-orduaz kanpora) apaiz batengandik besteagana edo Obispo Jauna-gana edo Aita Santua beragana. Gauz-au dago, bere ume guziak zerura eraman nai dituan eta Espiritu Santuak argitu eta laguntzen dion Ama Eleiza Santak, ipiñia. Aitor gentzake, beraz, arrazoi eta begiramentu hit aundi eta egokiaz eukiko duela orrela erabakia; eta ez dezue ori zer miretsirik, bala munduko erreñu guzietan ikusten degu, era orretan daudela *ezlabaita* edo auziak eta gaistakeriak erabaki eta barkatu edo kastigatzeko juez eta tribunal mallak chi-


kienengotik aundienengoelaraño, erri chikietako juezetatik korteko tribunal buruaño, arkitzen dala oen guzien gañetik, malla oriek ipintzen dituan gobernu, Errege edo buruzaya. Ar-ezazue bada gauza au arretaz kontuan gero esan bear dedana argi eta errés ikusi dezazuen.

3.^a Jakiñ bear dezue gañera, Jesu-Kristo gure Jaunaren odol tanta bat bakarra aski eta oraindik geiegi zala inpernuko deabru eta munduko gizonen pekatu guzien zorrak osó kitatzeko; baña ala guziaz ere, nai izan eta eraman rituala neke-oñaze izugarriak eta eriotzarik lotsagarriena, merezitzen zuala onela milla-millaka mundu eta are geiagoen pekatuen zorrak kitatzeko diña; zergatik arren merezimentuak, Jaungoiko batenak diralako, ez due kaburik.

Birjiña María Jaungoikoaren Ama eta Aingeruen Erregiñak, pekatuaren itzalaren iduriarik etzuelarik ere, bizitza luze eta saminiñik samiñena eraman zuan, eta eziñ esan ala merezimentu irabazi zituan. Orobat Apostoloak eta larogei bat milloi martiri santuak beren odola iñuri eta bizitza eman zuten, eta beste santu askok beren pekatuak zor zuen baño penitenzi andiagoak egin zituen, irabazten zuelarik onela animako ondasun, interés eta aberastasun ugariak; eta gure Jaungoiko maitagarriak, pekatariak dioen amorioaz, bere eta santuen irabazi eder eta ugari oek utzi zizkion Eleizari, bere grazi-gordairuan gorde, eta ama maite eta aberatsak bezela, joan zedin gero zabaltzen purgatorioko anima gaišo, eta lurreko bere ume katolikoetan, zeñak, beren penitenzi eta obra onen paltan, aiek irabaziaz bederen, beren zorrak ariñdu edo kitatu zitzaizen. Eta Eleizak, bere muga eta bazter gabeko gordairu orretatik zabaltzen dituan ondasun eder oriei, deitzen zaie *barkamen* edo induljenziak: eta fedeko egia da, Ernesto eta lagunak, Eleiza ama santak badituala eta eman litzakeala barkamen edo induljenzi oriek. ¡Eta zeñ egi pozgarria, nere adiskideak, katoliko guzientzat! Orain bada gauza oek onela diran ezkerro arretaz entzun eta eranzun.

AGUSTIN JAUREGI-KOAK.

(*Aurrandetuko da*).



M I S C E L Á N E A .

Hemos recibido el cuaderno V de la Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara, por nuestro querido amigo y compañero D. Arturo Campion.

La aceptacion que esta excelente obra alcanza en el país euskaro es mayor cada dia. Los bascófilos todos la elogian, no ménos que la prensa periódica basco-nabarra.

A este aplauso gencral no añadiremos nosotros una palabra; pero si diremos que las condiciones tipográficas de la publicacion confirman el buen nombre del establecimiento en que se publica, que es el de nuestro amigo y paisano D. Eusebio Lopez, en Tolosa


Cada cuaderno, de 64 páginas en 4.º, cuesta tan solo una peseta.



Nuestro estimado amigo, el activo editor D. Eusebio Lopez, ha tenido la bondad, que muy de véras agradecemos, de enviarnos un ejemplar, elegantemente encuadernado, de los *Sermones para el mes de Mayo*, del insigne bascófilo D. Juan José de Moguel, que acaba de imprimir en su magnífico establecimiento.

La esmerada impresion de la obra, corresponde á la excelencia del texto, al que precede un breve prólogo y una compendiosa noticia biográfica del autor.

Digno de aplauso es el celo del Sr. Lopez, que está dando á conocer á los amantes de la literatura euskara libros tan valiosos como el de que se trata, cuyo precio es de 7 pesetas.



Por el Sr. Vicario de Fuenterrabia, D. José Joaquin Ollo y con aprobacion del señor Obispo de Vitoria, se proyecta una peregrinacion entre las Hijas de María de toda la provincia, al renombrado Santuario de Nuestra Señora de Guadalupe, y para el objeto se han repartido circulares en bascuence y castellano, firmadas por la presidente de la Asociacion de Fuenterrabia, doña Fermina Laborda.

El dia escogido es el 2 de Julio del presente año.

SECCION AMENA.

ESA.... MIÑA.

Medikutako zuben
 Jillek esamiña
 beldurrarekiñ ere
 bai tripako miña.
 Zuk izango zenduben
 nola dan jakiña
 trantze gogor abetan
 arkitu baziña.
 Tribunalen aurrean
 agertu zanian
 estuasuna frako
 zeukan barrenian.
 Zenbat ezur ditugun
 biatz bakoitzian
 galdea egin zioten
 aurren aurrenien.
 Ibilli zan mutilla
 zerbait nairik esan

jo gora ta jo bera
 bañan arroketan.
 Nun naitik zerizkala
 izerdi tantuak
 begiak oker, dar-dar
 ankak ta besuak.
 Ikusirikan ori
 tribunalekuak
 kupiturik chandatu
 zizkan leziyuak.
 —¿Zer aginduko dezu
 badago estatua
 norbait sukarrarekin
 pulmoniyaz jua?—
 Pozez pentsaturikan
 gauza segurua
 erantzun zuben azkar
 —Azken-unziyua.

MARCELINO SOROA.

ANTON ETA JOSEPA
SAN JOSÉ EGUNEAN.

ANTON.—¿Zér da usai au, dama,
 Onen gozóa?

JOSEPA.—Da lore-sortacho bat
 Gaur goizekoa,
 San Josek Zerutikan
 Botatakoa.
 Agerzadazu, Anton
 Zure gustoa
 Esanaz zéiñ dan lore
 Eterragoa,

ANTON.—Neretzat ederrena
 Da biolchoa
 Umill-umill chokoan
 Gordetakoa;
 Ala zuetan ere,
 Dama gaiñoa,
 Ez nuke nai neretzat
 Puztu arroa,
 Baizik ondo birtutez
 Jantzitakoa.

ANTON BAT.



GETHSEMANÍ.



I.

Habia llegado ya la luna de Marzo anunciando desde la montaña de los Olivos, con los fuegos sagrados, la llegada de la santa Pascua; y los hijos de Israel, dispersos desde el Eufrates al Nilo, del mar Tirreno al Ponto Euxino, habian acudido á la ciudad de sus padres á celebrar la solemne fiesta.

Las calles de Jerusalem hervian en gente, ruido y movimiento, al que excitaba con su frio soplo una fresca brisa de Marzo.

Hacia una noche magnífica, de esas que solo se ven en las cálidas regiones de Oriente; y en medio del cielo tachonado de estrellas, brillaba pálida y triste la luna; más triste que nunca acaso, porque venia á alumbrar la amarga agonía del Hijo del Hombre.

Poco despues de oscurecido, y de una casa situada en lo alto de la ciudad, cerca del palacio de David, salieron silenciosamente doce hombres, y principiaron á bajar con paso lento hácia el torrente del Cedron.

Los rasgos de sus fisonomías francas y varoniles, y los trajes parecidos que vestian, revelaban al primer golpe de vista su origen Galileo.

Once de ellos iban apiñados, siguiendo respetuosamente á alguna distancia al que segun las apariencias parecia ser su jefe, y que caminaba por delante triste y abstraído. Y sin embargo, á primera vista,

en nada se distinguía de sus compañeros, sino es por el color morado de su túnica y su larga cabellera, que indicaban su profesion de Nazareo. Pero mirándole atentamente, se descubria en la inefable pureza de sus miradas, y en la ideal belleza de su rostro, algo de augusto y santo, algo de sobrehumano, que hacia exclamar como á aquel salteador que le salvó de la muerte en los arenales de Egipto: ¡A la verdad, si Dios tiene hijos.... este es hijo de Dios!

Y en efecto, aquel hombre era Jesús, que se dirigia al monte de los Olivos acompañado de sus discípulos. Estos iban tristes, muy tristes, pues las últimas palabras que habia pronunciado el Maestro despues de la cena sagrada habian arrojado un velo de amargura sobre sus almas; y cuando la luna proyectaba la luz sobre sus rostros, se descubria más de una lágrima rodando silenciosamente por sus tostadas mejillas. Ya se habian alejado de la ciudad, y sin embargo, las inquietas miradas que dirigian continuamente á todos lados, revelaban el temor y la agitacion que les dominaba.

Solo Jesús, profundamente abstraído en sus reflexiones, se adelantaba en silencio, sin preocuparse de lo que pudiera ocurrir en su alrededor. De esta manera atravesaron el puente que unia las dos orillas del torrente, no léjos de los sepulcros de Absalon; y al llegar á las cercas de Gethsemaní, dejando allí á los demás discípulos, entró con Pedro, Santiago y Juan por las abruptas asperezas del monte de los Olivos.

La oscuridad, el silencio y la imponente grandeza de aquellas sombrías soledades, aumentaban la tristeza de sus almas. En aquel momento los discípulos recuerdan los lúgubres vaticinios del Cenáculo... la traicion de uno de ellos.... el abandono de los demás. ¡Despues los ultrajes de los enemigos.... y lloran! ¡Lloran todos, y Pedro aprieta con sus manos el pomo de la espada que oculta bajo el manto!

Jesús se detiene, y exhalando un profundo suspiro se vuelve á ellos, y queda contemplándoles un rato.

Pedro levanta la cabeza, y mira con cariñosa ansiedad á su Maestro; y al observar la palidez de su rostro, baja atribulado la cabeza, y una lágrima de dolor se escapa de sus párpados.

Sin embargo, Jesús haciendo un violento esfuerzo mueve los labios trémulos, y dice:

—¡Se acerca mi hora!

Levantando luego los ojos al cielo, añade con doloroso acento:

—¡Triste está mi alma hasta la muerte! esperaos aquí y.... velad conmigo!

Despues se aparta lentamente y como á distancia de un tiro de piedra, se detiene desfallecido en un pequeño olivar, en el que aún cree ver la piedad cristiana ocho de los árboles que presenciaron aquella noche la mortal agonía del hijo de María.

II.

A la entrada de una estrecha gruta natural habia un pequeño peñasco que se elevaba algun tanto sobre el resto del terreno; y Jesús, sentándose en él, y apoyando la cabeza en una de sus manos, hunde las tristes miradas en la imponente sombra de la capital judáica.

La luna, cruzando lentamente el espacio, bañaba frente á él con melancólica luz en el monte Moriah, las anchas terrazas del Templo, flanqueado por la torre Antonia. A su izquierda, la mística Sion levantaba á las nubes su negra silueta, ceñida la frente con el palacio de su egregio abuelo, poeta, monarca y santo. Y á sus mismos piés se perdía en la oscuridad el misterioso valle de Josaphat, con las negras aguas del Cedron rompiéndose entre rocas. Jesús mira á Jerusalem.... y suspira; y de sus divinos ojos deja caer dos lágrimas que resbalan silenciosamente por sus pálidas mejillas. ¡Cuán sombríos debian ser los pensamientos que así alcanzaban á turbar la augusta serenidad de su alma santa! ¿Y cómo se atrevia el dolor á herir con sacrilega mano aquel corazon cuyos latidos enjugaban todas las lágrimas, y disipaban todos los dolores del mundo?

¡Ay! ¡su espíritu divino, iluminado por vision profética, estaba en aquel momento mirando á aquellos hombres perderse entre las abominaciones de la desolacion, tramando entre sombras su sacrificio y su muerte! ¡Pero si siquiera despues de su nefando crimen y purificados con su sangre, levantáran el corazon á Dios llorando sus locuras! Mas ¡ay! ¡muy léjos de eso, endurecidos y rebeldes como ántes, les veia sacrificar á los discípulos como sacrificaron al Maestro! ¡Y despues... por entre el vapor de tanta sangre inocente, se levantaba al soplo de Dios, allá léjos.... en las orillas del Tiber una nube negra, que arras-trando entre sus alas las cohortes de Vespasiano, se precipitaba como la tempestad, contra los muros de la ciudad incrédula.

Allánanse los fosos, derrúmbase la triple muralla, y el Templo

sagrado, símbolo de los destinos de Israel, cae envuelto entre llamas agitadas por una mano invisible y misteriosa. Obstrúyense las calles con cadáveres insepultos, que devoran á los vivos con su hálito de muerte, y en el vértigo de su desesperacion y locura... los padres matan á los hijos, los hermanos á los hermanos; y las inocentes criaturas espiran de hambre, colgados de los pechos secos é infecundos de sus famélicas madres. Y al fin, los últimos restos de los Patriarcas y de los Profetas, de los Levitas y de los Reyes, son arrojados á los cuatro vientos al chasquido del látigo romano, para vagar errantes hasta el fin de los siglos, llevando en su frente el sello de su sacrílego Deicidio.

Ante vision tan pavorosa, Jesús, separando los ojos de la desdichada Jerusalem..... ¡llora! ¡Llora.... que aquel pueblo es el pueblo de sus padres; y aquellos hombres son sus hermanos; los hijos de Abraham y de Jacob, de David y de los Macabeos! ¡Y él que habia venido y moria por salvarlos, les llama.... y le rechazan! ¡los busca.... y le sacrifican! ¡les ofrece, en fin, por su amor la sangre y la vida.... y ellos en el insensato paroxismo de su furor maldicen su agonía, y piden á los cielos horrorizados, para su cabeza y las cabezas de sus hijos, toda la sangre del justo!

¡Jesús siente desgarrado el corazon por la ceguedad de aquella ciudad, que á pesar de su ingratitud y su dureza, ama con todas las fuerzas de su alma! Y enternecido ante las desdichas que le aguardan, recuerda las tristes palabras que la dirigió pocos dias ántes con lágrimas de compasion en los ojos: «¡Jerusalén! ¡Jerusalén, que matas á los profetas y apedreas á los que te son enviados!..... ¿Cuántas veces quise reunir tus hijos, como la gallina reúne sus polluelos debajo de las alas.... y no quisiste?

¡Oh, á su recuerdo siente ahogarse! Ni encuentra aire que respirar, ni tierra donde apoyarse, ni luz que alumbre sus ojos. El corazon oprimido de angustia á la violencia de sus dolores, cesó de latir un instante. Dobló desfallecido las rodillas, hundió su rostro en el suelo, y balbuceó con moribundo acento: «¡Padre mio! ¡Si es posible, pase de mi este cáliz, sin que yo lo beba, pero no se haga como yo quiero sino como quieras Tú!»

¡Levantó los ojos al cielo buscando en él un rayo de consuelo que templase su amarga agonía.... pero el cielo permaneció cerrado! ¡Ay! ¡aquella terrible desolacion y aquel pavoroso desamparo, no

eran más que el principio del sobrehumano martirio que habia de terminar con su vida en las siniestras cumbres del Gólgota!

Y sin embargo... su corazon henchido de amargura reventaba en el pecho y necesitaba derramar sus penas. Entónces se acordó de la entusiasta adhesion de Pedro, de la ternura de Juan, de la lealtad de Santiago, y fué á buscarles para desahogarse con ellos.

Pero.... ¡tristes consuelos los que pueden hallarse en el frio y egoista cariño del corazon humano!

¡Los discípulos estaban durmiendo! ¡Aquellos hombres, elegidos entre los mejores, nutridos con su divina palabra, criados y vivificados al calor de su pecho, olvidaban en brazos del sueño la amarga agonía de su Maestro y su Padre!

Jesús los estuvo contemplando un rato; y cuando vió que se despertaban, dijo á Pedro con acento de cariñosa reconvencion: «Simon, duermes? ¿Siquiera una hora no habeis podido velar conmigo? ¡Velad y orad, porque no entreis en tentacion! ¡El espíritu á la verdad está pronto, pero la carne es flaca!»

¡Los discípulos, confundidos por sus palabras, bajaron las cabezas; y Jesús exhalando un suspiro, se separó de ellos y volvió á la sombra de los olivos á continuar en su amarga agonía!

III.

¡Las perfumadas brisas de Jamnia y de Arimathea traian á sus oidos el rumor de las fiestas de la ciudad incrédula! Y así como ella, todo el pueblo de Israel, corrompido por la hipocresía y la codicia.... la Grecia revolcándose prostituida entre los girones de su antigua gloria.... Roma abrevándose bajo el látigo de sus tiranos, en la sangre de los vencidos y de los esclavos.... el Africa, la India, las regiones trasatlánticas, en fin la humanidad toda entera, gangrenada hasta el corazon por el politeismo, la esclavitud y la sensualidad, corria despeñada como una bacante impura por los abismos de la perdicion y de la muerte; mientras en lo alto, con la diestra levantada y el rayo en la mano, se agitaba el ángel de las cóleras del Eterno, pronto á volver á la nada á la rebelde criatura que habia perdido hasta la memoria de su Criador.

¡La carne habia corrompido ya todo el camino; la luz de la fé se

habia apagado... la copa de la misericordia divina no cabia una gota más!

Estaba en fin sonando la hora suprema de la salvacion ó de la muerte.... ¡Hora terrible, y el mundo reia y cantaba sin sospechar que en aquel momento se estaban decidiendo sus eternos destinos bajo unos tristes olivos del valle del Cedron!

¡Hora terrible! ¡Y el mundo reia y cantaba, mientras se trababa la gigantesca batalla en el corazon de Jesús!

¡Ay de la humanidad, si hubiera sido posible que cayera en la lucha!

¿Dónde encontrar ya lágrimas tan preciosas, que bastáran á borrar las huellas de la abominacion universal, reconciliando á Dios con el hombre?

¿Dónde encontrar una víctima tan santa, y de precio tan infinito, como infinita era la expiacion que exigia la inquebrantable ley de la justicia eterna? En la raza de Adam, toda manchada de la culpa, en ningun lado.... sobre ella.... solo en el seno de Dios, en el Verbo del Padre.

¡Y por eso Jesús bajo el peso de tan inmensa carga, gemia moribundo por el hombre, postrado á los piés de Dios!

¡Qué lucha tan espantosa! ¡qué tempestad tan deshecha!

¡Todas las lágrimas de arrepentimiento y de amargura que brotaron de los corazones abrasados de los Pedros y de las Magdalenas, de los Agustinos y de las Pelagias.... todas las congojas y las angustias con que ven abrirse los pecadores las puertas de la eternidad, no llevando para el tremendo viaje más que la negra cadena de sus extravíos y locuras.... se agolpan sobre el corazon de Jesús en tumultuoso y revuelto oleaje!

Contúrbase su espíritu; desfallece su alma entre las ansias de muerte, y su cuerpo se estremece en movimientos convulsivos, mientras inunda su frente el frio sudor de la agonía.

¡Sin embargo, su voluntad sobrenada entre las olas! ¡Por segunda vez, el espíritu aherroja la carne flaca, y postrándose en tierra, envía al Eterno con desfallecido acento, la expresion de su sumision y de su obediencia!

«¡Padre mio, si no puede pasar este cáliz sin que yo lo beba, hágase tu voluntad!»

Se levantó y se dirigió con paso vacilante al lado de sus discípulos.

Estos habian vuelto á dormirse, y al sentir sus pasos *abrir los ojos cargados de sueño.*

Jesús los miraba, y ellos no sabiendo cómo disculparse, callaban confundidos.

¡Pedro! ¡Pedro! ¡El apóstata que ha de entregar al Maestro reúne sus sicarios y se acerca! ¡Tu Señor agoniza! ¿Y tú duermes?

¿De qué te sirve esa espada que enseña la punta por bajo del manto? ¿De qué aquellos brios con que desafiabas hace una hora todas las iras del enemigo?

Sin embargo, Jesús contempla con tierno interés el enérgico rostro del galileo, y es que á pesar de su flaqueza y su abandono, le conmueven dulcemente los impetuosos arranques de aquella alma apasionada, que se cree en su entusiasmo con bastante aliento ella sola para proteger contra el mundo entero al dulce objeto de su amor y de su culto.

Dirige despues una mirada de cariño al discípulo amado, y al leal Santiago, y vuelve por tercera vez al combate, recomendándoles la vigilancia y la oracion.

IV.

Al llegar junto á la gruta, sentóse por un momento, pues se sentia fatigado; y sus ojos se fijaron en la cumbre de la montaña, á cuya falda dormia entre higueras y terebintos la aldea de Bethania, la apacible y bendita Bethania, el dulce nido del Salvador.

¡Jesús pensó en ella, y en la casa de su amado Lázaro, donde le aguardaban á todas horas ansiosamente, la mística y arrebatada pasion de Magdalena, la suave ternura de Martha, y la profunda adhesion de su hermano!

¡Ay! ¿Cuántas veces fatigado el espíritu por las argucias y las sofisterías de los hipócritas doctores, iba allí á reanimar su corazon al calor de aquellas dulces almas?

¡Acaso se encontraba tambien á su lado en aquel momento, con el pensamiento y el corazon fijos en él, la inmaculada María, la más dichosa y la más afligida de las madres! Jesús apartó la vista de aquellos sitios y la dirigió hácia las cabañas de Betphagé, que vieron hacia tres dias su entrada triunfante y gloriosa en Salém. ¡Qué diferencia! Dentro de aquellos muros que le recibieron entónces entre

cánticos y bendiciones, se tramaba ahora la tenebrosa traicion que habia de poner fin á sus dias.

Jesús cerró los ojos, y principiaron á desenvolverse á la vista de su espíritu los lúgubres cuadros del sangriento drama que habia de atravesar la vida de la humanidad hasta la consumacion de los siglos, entre el llanto y la adoracion de todas las generaciones.

Se vió brutalmente arrastrado entre ultrajes y bofetadas ante los jueces sedientos de su sangre. Luego, atado á una columna, creia sentir los golpes de los azotes que hacian saltar sus carnes en pedazos, dislacerando todos sus músculos. En seguida, destrozada la cabeza con las punzantes espinas que atravesaban su cráneo entre el escarnio y la befa de la soldadesca desenfrenada, se miraba como en una horrible pesadilla, sirviendo de burlesco espectáculo á un populacho salvaje, que pedia su sangre con frenéticos alharidos, aumentándose su rabia á medida de sus tormentos.

¿Y despues? ¡Despues venia aquella espantosa, aquella mortal jornada al Gólgota!

Los pulmones inflamados por la carnicería de las espaldas, el sol escandeciendo con sus rayos las heridas de su cabeza, la sangre hirviendo al fuego de la fiebre.... y ¡ay! ¡la cruz, la vergüenza! la negra ingratitud de aquel pueblo.... todo esto dando horribles vértigos á su cabeza.... y angustias de muerte á su alma santa!

Y si ansiando el término de tan terrible martirio, fijaba sus miradas en la cumbre, encontraba por único consuelo la muerte! ¿Y qué muerte?

¡Arrojado sobre el tosco leño que renovaba con sus nudos las sangrientas llagas de la espalda y los tormentos de su cabeza, iban clavando á martillazos sus piés y sus manos, desgarrando con nuevo dolor á cada golpe todas sus carnes, todas sus fibras, y todos sus nervios!

¡Levantado luego en alto, caia en peso sobre sus plantas y sus manos, cuyas heridas se abrian y se ensanchaban con redoblado y cruento martirio, mientras á los quejidos desgarradores que arrancaba el dolor á su pecho, respondian los sacerdotes, los escribas, y las frenéticas turbas, con exclamaciones de alegría, y con sangrientas sarcásticas burlas!

¡El corazon de Jesús se estremeció de espanto á tan aterradora vision, y abrió los ojos para desviarla. Una nube de pavoroso terror

tendió un velo de muerte sobre su alma, y toda la sangre de las venas se precipitó como un torrente sobre su corazón destrozado!

¡Oh, no es posible! ¡No es posible! gritaba la tentación al oído de la carne flaca. No hay fuerza para resistirlo.

Pero su espíritu veía al hombre manchado por la culpa perderse en los suplicios eternos; y movido de compasión y de lástima, gritaba á su vez:

«Padre mío! ¡Que se salve.... que se salve el hombre! ¡Corrompido y todo como está, es nuestra imagen y semejanza... es la obra de nuestra ternura.... es el objeto de nuestro amor! ¡Y á pesar de su ingratitude y su rebeldía, cada lágrima de arrepentimiento que veo en sus ojos, cada súplica que balbucean sus labios, y cada suspiro que envía su alma, alegran más mi corazón que los cánticos y las adoraciones de los ángeles y de los serafines!

¡Oh Padre! que se salve.... que se salve el hombre, y si para ello necesita tu justicia toda mi sangre.... hé ahí mi sangre.... y sálvalo, Señor!»

La carne calló. Pero ante el enérgico esfuerzo del espíritu victorioso, todos los músculos de su cuerpo se agitaron con fuerza, y la sangre, concentrada en el corazón revotando violentamente, fué arrojada con ímpetu á todas las extremidades, y extravasándose por los poros, inundó copiosamente su frente y su rostro.

Hundió su semblante en tierra; lloró y gimió entre congojas de muerte, y después levantando los ojos al cielo con expresión de infinita angustia, murmuró con acento moribundo, pero con santa resignación ¡Padre mío! ¡Si es posible, pase de mí este cáliz, pero no se haga como yo quiero, sino como quieres Tú!

¡Innumerables coros de espíritus celestiales rodearon con adoraciones la Oración del Verbo Eterno, acompañándola respetuosamente á los pies del Altísimo; y el primero de los Angeles de su místico trono, trajo á Jesús el ósculo de amor del Padre, y con él la fortaleza y el consuelo!

Entonces se puso en pie, y como el sol que después de la tormenta reaparece con nuevo esplendor disipando con aliento de fuego las últimas nubecillas, así también su espíritu confortado y triunfante borró hasta las huellas de la anterior borrasca, y levantó serena é invencible su frente, ceñida por la triple corona de la santidad, del amor y del martirio.

¡La lucha habia terminado, y principiaba el sacrificio!
 Lo aceptó y consumó, sin que nada pudiera turbar en adelante la enérgica firmeza de su augusta voluntad.
 ¡Combatió y triunfó por salvarnos, y murió por nuestro amor!
 ¡Ay! ¿Cuándo aprenderemos nosotros á luchar y vencer por Él?

JUAN VENANCIO ARAQUISTAIN.

ALBISTE ON BAT URTEORO BERRITZEN DANA.

Edadean eta dotriñan lenagoko denboretako gizon-
 zar **FERNANDO** eta onen antzekoen, eta oraingo denboretako
ERNESTO, eta bere gisakoen arteko «jolas-aldiya.»

(BUKÁ.)

1.^a Pecha edo kontribuzioak ipintzen dituan Errege edo gobernu batek, ¿balitzake ariñdu eta osó kendu ere, naiz persona bati, naiz askori, naiz ipiñi dien guziai? Dudarik gabe esango dirazue baietz.

2.^a Errege edo gobernu, juez eta tribunal mallak ipiñi eta oei eskua neurtu dioen batek, luzatu edo laburtu lezaioke esku ori? Au ere aiñ gauza argia da, nun eziñ ukatu dezakezuen.

3.^a Bere ume guziak bear eta opa lezakeen baño geiago duan ama maite eta aberats batek, ¿eman dezaioke, ala naiduanean, bere umeetatik bati edo zenbaitzuei zerbait geiago, beste umeen batere kalte gabe? Au esango dezue berriz, lengo galdeerak baño ere oraindik argiagoa dala.

Orduan, beraz, izanik Ama Eleiza Santa kristau fededun guziai *barau-bijilien* pecha edo kontribuzioa ipiñi diena, ariñdu edo kendu leioke kristau bati, erri bati, edo guziai. Izanik ere, Jaungoikoa-gandik duen eskuarekiñ, pekatuen eta konfesoreen mallak ipiñi eta konfesorai eskua neurri diena, luza lezake, zenbait pekatarien mesedetan, len laburtu duan eskua. Eta izanik azkenik induljen-

zien muga gabeko gordairua duen ama guziz, aberatsa, eman leizkieke induljenziak, bere umeetako batzuei, besteen batere kalte gabe. Zenbait katolikoen mesedetan Eleiza Ama Santak egiñ litza-keen, oraiñ esan ditugun gauza oriek, egiñ zien bada eta egiten ere die Españiako erreinū eta onen mendeko lurretan bizi-izan ziran eta bizi diran here ume fededunai, beste erreinuetako katolikoen batere kalte gabe; eta espāñolak haditugula, besteak ez bezela, mesede ondasun eta eskubide aiek agertu dezakegun, Eleizaren buruzai eta Jesu-Kristo gure Jaunaren ordezeko dan Erromako Aita Santuak, eman digu agiri edo paper bat, *Bulda Santua* deitzen dioguna; zeñaren bidez Espāñiako katolikoak, beste erreñoetakoak eziñ lezatekeena, gloria eta atsegiñ santu batekiñ azaldu eta probatu lezakee, zenbait barau ta bijili egunetan jan lezakeela aragiya berak nai eta autatzen duen konfesore batekin balezakeala urtean beiñ edo bi aldiz beren konzienzia garbitu, batere Obispo Jaun edo Erromara Joan gabe, (nun da konfesatzen dituen pekatuak ez diran Bulda Santuak beresten dituan bi aietakoak) eta ariñdu edo kitatu litzakeela, beren pekatuen zorrak, penitenzi eta obra on askoren paltan, Eleizak ematen diezkeen animako aberastasun eta barkamen ugari eta bereziakin. Orra bada zer dan Bulda Santua, eta zeñ mesede eta ondasun ugari eta estimagarriak aren bidez Eleiza Ama Santak, beste erreinuetakoai ez, eta Espāñiako bere ume katolikoai bakarrik ematen dizkigun. ¿Nork, zentzu gabea ez danak, ez luke naiko pecha edo kontribuzio astunetatik libre izatea, berak nai duan juez adiskide bateñin bere auzi eta utsegiteak erabakitzea, eta aldeza-keen interes eta ondasun guziak bereganatzea? ¿Nork bada Espāña guzian, nun da ez dan katolikoa, ez du naiko atsegin eta esker aundiz artu, ondasun eta mesede oriek guziak ekartzen diozkan, Bulda Santua? ¡Ai, Ernesto eta lagunak, eta zer ezagüera guchi eta esker gaistoak geran espāñol asko! Ikusi bear zenukee nolako gutizi santuarekiñ beste erreinuetako katolikoak begiratzen dien Aita Santuak Espāñiakoai bakarrik egiten digun berezitze maitatsu-oni, Aitor ezazue garbiro, nere adiskideak, badezuela zuek, pekatuen zorrak ariñdu edo kitatzeko penitenzia egitearen, beste zenbaitek ainbat premi; maite dituzuela, eta geiegi ere bai, aragi gauzak jatea, eta izan ditzakezuela anbat anbat barkazio billa Obispo Jaun edo Erromara bertará joatea bear lutekeen zenbait pekatu. ¿Ez da bada izango zuentzat albiste edo *berri on bat* esaten badizuet zuen pecha oriek ariñdu eta animako premi eta zauri oiek erremediatu ditzakezuela emen bertan iñora gabe eta neke guchirekin? Orra bada nun dezuen gauza oek guzietarako *Bulda Santua*.

Begiratuaz bada, katolikoak zeratela diozuen aldetik, zuen anima gaiño eta tristeai, inpernuko leiza zulora amildu ez ditezen, artu ezazue Bulda Santua, eta garbituaz onen bidez zuen biotzetako loi eta ordoi zarrak nai dezuen konfessore batekin, eta egiñik ondo Pazkoaz, ekin zaiozue zerurako bide zuzenari apaindu eta indartzen dituzuelarik Buldaren grazia eta ondasun ugariakin zuen anima osó beartuak.

Ernestok.—Gero eta obeto ta egokiyago mintzatzen zera, adiskidea: eta arrayopola ¡kontu! chapel zabal orren azpian beste bu-ruenbat ez ote daguan. Dana dala, eman biar nazu, mesedez bederen, chapel orrek egiten dituben umietatik bat. Arrazoya dezu gañerakuan, ez dala Jaungoikoa guk nola nai autan ibilli biar gendukiana, eta gaizki itzegin badizugu, barkatu. Buldaren gañian esan dizkigutzun beste gauz-oiek onak eta egokiyak dirudite. ¿Baña ori aldezu Bulda? Gizona, nik beti aditu, eta mutill chikiya nintzala amari ikusi niyonez, etzenduen Bulda oraiñ zuk esan gaituzun gauza on eta pozgarriy-ori ez bada letraz eta gurutzez estalitako paper basto zar bat.

